

Eskailera

Jenderik gabeko herriak asko gustatzen zaizkit. Horregatik, sarritan joaten nintzen Nafarroako herri isil eta hotz hartara.



Haizotz, nire herritik 40 kilometrora dago. Inork ez zekien noiz geratu zen jenderik gabe Haizotz herria. Geroztik, kaleetan ibiltzen zen bizilagun bakarra haizea zen. Haize hotza.

Nik 19 urte ditut; Arturo dut izena, baina, lagunek Artu deitzen didate. Orain dela hamar hilabete gidatzeko karneta atera nuen, eta jai egunetan gehien gustatzen zaidana herri txikiak bisitatzea da, ni bizi naizen hirian zarata besterik ez baitago.

Duela hilabete pare bat gertatu zitzaidana kontatuko dizuet.

Behinola, autoa hartu eta Haizotzera abiatu nintzen. Azken bost kilometroak oinez egin behar izan nituen, bidea zuloz eta sasiz beterik zegoelako. Azkenean, han, urrunean, Haizotzeko kanpandorra ikusi nuen. Harrizko dorrea zen eta herriaren erdian zegoen, zutik eta harro, bakardade zaindari bezala.

Iritsi nintzen herrira. Txori beltz bat pasatu zen **garrasika** nire buru gainetik, eta dorrearen leiho batetik sartu zen. Gero, bere zulotik begiratu zidan, harriturik bezala.

Herrian zehar buelta bat eman ondoren, dorrerantz jo nuen. Argazki batzuk atera nituen. Gero, atetik sartu nintzen.

Barrua oso ilun zegoen. Atearen ondoan, eskailera biribil baten lehen mailak ikusi nituen eta igotzen hasi nintzen. Eskailera guztiz sendoa zen.

Mailak bustita zeuden, eta batzuk oso gastaturik. Une batez, atzera egiteko gogoia etorri zitzaidan, baina gero aurrera segitu nuen.

- "Goitik ikuspegi ederra egongo da, eta argazki pare bat egingo ditut", pentsatu nuen.

Bost minutuz, lasai ibili nintzen eskaileretan gora. Gutxienez, laurogei maila gainditu nituen. Beste bost minutu eman nituen goranzko bidean. Hala ere, eskailera ez zen bukatzen. Aurrera segitu nuen beste bost minutuz... eta beste hamar minutuz... Laurehun maila igo nituela kalkulatu nuen eta, hala ere, eskailera gorantz zihoan itzulika. Orduan, beldurtzen hasi nintzen. Arnasa hartu eta presaka igo nituen beste ehun maila. Baina dorrearen bukaera ez zen inon ageri. Larriaren larriaz, beherantz hasi nintzen arineketan. Seiehun, zazpiehun, zortziehun..., baina irteerako atearen arrastorik ez.



Kanpoan iluntzen hasia zen eta beldurra barnerago sartu zitzaidan. Orduan gorantz jo nuen, irteera atzean utzita nengoelakoan. Baina alferrik.

Azkenean, neka-neka eginda, maila batean eseri eta lo gelditu nintzen.

Esnatzerakoan, oreka galdu eta eskaileretan behera erori nintzen **itzulipurdika**. Erori eta erori. Behera eta behera. Azkenean, nire gorputzak egurrezko ate baten kontra jo zuen. Kanpora atera nintzen eta atzerantz begiratzean, Haizotzeko harrizko dorrea ikusi nuen, beti bezala.

Autorainoko bidea, korrika eta itzulipurdika egin nuen. Ez naiz gehiago Haizotzera joango, ezta dorre batean sartuko ere.

(Txinparta irakurgaiak-Zubia)

Eskailera - Ariketak

Jarri X erantzun egokiaren parean.

1. Nork kontatzen du ipuin hau?

Protagonistak berak

Andereño batek

Arturoren lagun batek

Herriko alkateak

2. Jai egunetan, Arturok...

...zina joatea du gustuko.

...gidatzeko karneta ateratzeko ikasten du.

...herri txikiak bisitatzen ditu.

...ardiak zaintzen ditu.

3. Arturo ezin izan da iritsi herrira autoz. Zergatik?

Gasolina bukatu zaiolako.

Bidean harri asko zegoelako.

Bidea zuloz eta sasiz betetik zegoelako.

Oinez ibiltzea gustatzen zaiolako.

4. Zergatik uste duzu beldurtzen dela Arturo, dorrearen barruan?

.....

.....

5. Irakurri ondoko esaldiak, eta esan zeinek adierazten duen ipuinaren ideia nagusia:

Arturok, Haizotz herriko dorrean izandako esperientziaren ondorioz, dorre batean ez dela berriz ere inoiz sartuko erabaki du.

Arturok, Haizotzera iristean, txori beltz bat ikusi zuen garrasika.

Arturo neka-neka eginda zegoen eta eskaileretan lo gelditu zen.

Arturo eskaileretan behera erori zen.

6. Ordena itzazu ipuinaren pasarte hauek, denboraren arabera: (1. 2. 3. 4.)

Arturo dorrera sartu zenean, eskaileretan gora lasai ibili zen, hasieran.

Herrira iristean txori beltz bat Arturoren buru gainetik pasatu eta dorrearen leiho batetik sartu zen. Harriturik bezala begiratu zion.

Esnatzerakoan, oreka galdu eta eskaileretan behera erori zen.

Neka-neka eginda zegoen Arturo hainbeste maila igo eta jaitsi, eta eskaileretan eseri eta lo gelditu zen.

7. Esan egia edo gezurra diren esaldi hauek: E/G

Haizotz herrian jende gutxi bizi zen.

Haizotz herriko bizilagun bakarra haizea zen.

Herriko dorrea itxita zegoenez, Arturo leihotik sartu zen.

Dorre barrua oso ilun zegoen.

Dorreko eskaileretan, lagun batekin topo egin zuen Arturok.

8. Hiztegia. Lotu hitza bere esanahiarekin: —————→

- | | |
|----------------------|---|
| | <ul style="list-style-type: none">• Zikin-zikina eginda etxera itzultzea |
| Itzulipurdika | <ul style="list-style-type: none">• Ipurdia erakustea.• Buruz behera ematen den buelta |
-

- | | |
|------------------|---|
| | <ul style="list-style-type: none">• Ahots indartsuz oihu egitea |
| Garrasika | <ul style="list-style-type: none">• Hegan egitea• Lasai-lasai jolastea |

9. Bila ezazu hitz arrotza, eta azpimarra ezazu.

Adibidez: Txoria, inurria, txerria, txistorra, txitxarroa. (*Guztiak animaliak dira "txistorra" izan ezik.*)

- Begia, ilea, sudurra, belardia, ahoa, kopeta
- Laranja, sagarra, platanoa, pastela, mahatsa
- Euria, trumioia, kamioia, elurra, haizea
- Garrasika, oihuka, zalapartaka, isilik

10. Emandako testua zein liburutan aurkitu ahal duzu?

- | | |
|--------------------------|---------------------------------------|
| ☐ | Inguruneko liburuan |
| ☐ | Hizkuntzako narraziozko liburu batean |
| ☐ | Atlas batean |
| ☐ | Komiki liburu batean |